

ZENBAT BURU
ñigo Otaño

RREPORTAJEA
kasturte
hasierako gastuak

KIROLA
Kirola Euskaraz":
entrenatzaile
euskaldunak
prestatzen

KULTURA
Gipuzkoako Herri
Arteko Bertsolari
Txapelketa
San Migelen

BARREN

1999ko iraiaren 17a
VII. urtea - 290. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A




Ikasturte hasiera
**Etxeko diru-kontuak
hankaz gora**

"Haur denboran ikasiak, zahartzaroan oroit" (Esaera zaharra)

UDAL EUSKALTEGIAK

zuKE. i-TORKIZUNA EUSKAKAZ



1111-2000 f KASTLIZTEKO ELISIOI MIKA STAROAK

Euskalduntze maila guztiak, Alfabetatze, EGA eta Hizkuntza Eskakizunak
Iraupena: Iraila-ekaina.
Erritmoak: Bi ordu egunean.
Ordu eta erdi egunean.

120 orduko ikastaroak

EGA ikastaroa (larunbatetan).

Irakurtzen eta idazten trebatzeko oinarrizko ikastaroa (astean 4 ordu).

Mintza praktika ikastaroa (astean 4 ordu).

Ikastaro bereziak ikastetxe, lantegi eta guraso taldeentzat

PREZIO BEREZIAK ikasle, langabetu, jubilatuta eta guraso taldeentzat

Bekatzeko sistemarekin ia dohainik ikasiko duzu euskara!

16 urtetik gorakoentzat.

1111atriku6aittlia

Irailaren letik 24ra

1111e:13 1111Zgia

ELGOIBAR: 9:00-13:00 / 15:00-20:00



DEME LIDAL EUSIOLTEGIEN MAIKOMUNITATEA

ELGOIBAR: Najarroa Erparantza 2 Tel. 943 74 27 31 • E-posta: eigaiouskalleisiaLgieuzkoane!

Aretxabaleta • Arrasate • Azpeitia • Beasain • Bergara Deba • Eibar • Elgoibar
Errenteria • Eskoniatza • Flemani • Hondarribia | Iruri - Lasarte-Oria • Legazpi
Mutriku - Pasaia Telosa • Umieta • Urretxu • Zarautz • Zumarraga

ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



10eko deskontua
Gazte Txartelarekin





IÑIGO OTAÑO

Udazkenaren atarian

Urtero bezala, konturatu orduko joan zaigu uda. Izozki baten antzera urtu eta ihes egin digu eskuetatik. Egia esan, irailaren etorrerarekin batera udazkenaren itzala somatzen hasten gara eta udaren azken hasperenak egunez egun agortzen doazela ikusten dugu. Gehiegi pentsatzen uzten ez duen garai bat da uda, agian gehiago irtetzen garelako, hobeto pasatzen dugulako, gehiago bizitzen garelako; ez dakit. Oporrekin erlazionatzen dugu beti uda, eskutik helduta agertzen baitzaizkigu normalean. Izan ere, opor garaia udak autoestopean hartu duen bidaiaria bezalakoa da, non eta noiz hartu bakoitzaren zorte eta gogoaren araberako dagoelarik. Horregatik, gogo onez hartu ohi dugu udaren etorrera, eta ez hain gustura, ezinbestean, ondoren datorenen udazkenarena.

Udazkenaren atarian gauzak bere normaltasunean murgildurik ageri dira berriro. Opor osteko nagitasuna ahaztu dugu eta guztia betiko martxan dabil. Eguneroko ordutegia hutsik gabe betetzera ohitu gara jadanik. Lehenengo egunetan harro erakutsi ohi diren oporretako argazkiak argazki zahar bihurtu dira honezkero eta auskalo noiz aterako ditugun berriro. Udazkena datorkigu gainera eta zuhaitzek hostoak galdu eta itxura aldatzen duten bezala, guk ere arropak aldatuko ditugu.

Aro nostalgikoa omen da udazkena. Topiko bat izan daiteke, baina udako bizipen guztien ondoren normaltasun eta egunerokotasunak oroimena astintzera bultzatzen gaitu besterik ezean. Gainera, eguraldia hoztuz doa, egunek lehenago iluntzen dute, mendiek tonu ezberdin bat hartzen dute, zahartzen ariko bailiran, eta udan ikusten genituen animalia asko desagertu egiten dira. Natura bere baitan biltzen dela dirudi, eta guri ere horretarako gonbitea luzatzen digula ematen du.

Udazkenaren atarian, amaigabea iruditzen zaigu oraindik pasatzeko daukagun negu luzearen arrastoa. Urtearen zati handi bat

zain ematen dugun opor horien ortzemugarik ez da ageri eta eguneroko lanean murgildurik, gehiago baloratzen ditugu lehenago garrantzirik ematen ez genien gauza xume asko. Horien artean, gorderik ditugun oroitzapen apurrak. Udaberria eta udarekin batera gauza zahar guztiak ezkutatu eta itxura indarberritua azaltzen dugun bezala, udazkenean gauza zaharrak ateratzen eta


oroitzapen hondarrak arakutzen iarduten dugu. Guztiok daukagu zer oroituia.

Dena den, nostalgikoa ala ez, uda guztiek behar dute euren udazkena, eta gainera, pasatu ondoren, hainbesterako ere ez zela ohartuko gara. Gauzek beti bezala jarraituko dute. Azken finean, udazken bat gehiago besterik ez da.

"Udazkenaren atarian gauzak bere normaltasunean murgildurik ageri dira berriro. Opor osteko nagitasuna ahaztu dugu eta guitija betike martxan dabil"

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barak, Birak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

.17 943 74 41 12

Publizitatea:

943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

ARROITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
KAZETARIAK	Iratt Agirreazaidegi, Asier Orbea
PUBLIZITATEA	Maitane Cid
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idota Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Jon Eugi, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Loliola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Udzar, Amaia Urzelai, Malte Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
AZALEKO ESALDIA	Gotzon Garateren liburitik
BANAKETA ARDORADLINA	Imanol Larrañaga
INFtAIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEoe oorwAiLun	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



*gizarte7kintrá
obra*

4 DANOIZAT

.2 GOIVU
GRUPO DANOBAT

Zein amelak garen!

Venbat aldiz kexatu ote garen EL—dgoibarren aparkatzeko lekurik egoten ez dela-eta! Herri-gunetik pis-ka bat aparte bizi diren herritar askoren artean oso ohizkoa izaten da autoa hartzea edozein errekadu egiteko. Ohitura hauek ez direla batere `sanoak' aurpegiratzen digutenean, atzakia merkeak erabiltzen ditugu geure bu-rua justifikatzeko.

Lehengo egunean, ezagun batekin hitzalditxo bat izan nuen aipatutako gaia dela-eta. Jakina da paseatzea oso ona dela osasunarentzat. Zenbat aldiz esan ote digun medikuak egunean hiruzpalau klometro eginda (baina oinez, ez autoz!), gure osasunak eskertuko digula. Ezagun honek zein aburdoak eta ergelak garen aipatu zidan: "Debako hondartzan ez dago autoa aparkatzerik. Hala ere, hori jakinda. autoa hartu eta, hondartzan pasiatzeko aitzakiaz (medikuak gomendatu digulako), bertara joaten gara, autoan noski, eta gainera, hondartza ondoko aparkalekuan tokiren bat topatzea nahi izaten dugu. Zenbat mekaue" ez ote ditugun bota, autoa ezin aparkatuta eguzki galdatan, lau edo bost buelta eman ostean! Oinez ibiltzeko aiatzakiarekin joaten gara, baina aparkalekutik uretarainoko bidea baino ez dugu nahi izaten oinez egiteal. Ez al da logikoagoa, eta osasuntsuagoa gainera, Elgoibarren trena edo autobusa hartu (udan orduero edo ordu erdiro egoten dira) eta Debako tren geltokitik hondartzara oinez joatea? Pasiatzea nahi badugu, horra hor paraje ezin hobea.

Estresatuta bizi garena esaten dugunean, arazoa inori aurpegiratu beharrean, pentsa ezazue norbere jokatibide aldrebesak direla askotan arazoa sortzen dutenak. Egokiena hain ergelak ez izatea da.

A. Gonnilez

BARENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **Izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**



WID11111

• Kiroldegiko bazkidea den emakume batek honako galdera hau egin digu: "Kiroldegiko bazkidea naiz eta aerobik ikastaroetan izena ematea erabaki nuen. Hala ere, oraingoz ezin izan naiz apuntatu, zerrenda luzea bait dago. Baina, bazkide ez direnak ni baino Iebenago hartu dituzte. Beraz, zertarako balio du bazkide izateak, Kiroldegiak eskaintzen dituen ikastaroetan parte hartu ezin badut? Bazkide garenok lehentasuna eduki beharko genukeela uste dut.

Ramon Mujika Udal Kirol Patronatuko zuzendariaren esanetan, "Kirol Patronatuko bazkidea izateak ez du esan nahi bazkide ez denak baino eskubide

gehiago dituzunik, ezta instalazioak erabiltzeko orduan lehentasuna daukazu-nik ere, beti ere, bakoitzak dagokion prezioa ordaintzen badu behintzat. Bazkide izateak, urtean erabiliko dituzun instalazioak aurrez ordaintzea esan nahi du (igerilekua, rokodromoa, gimnasioa, etab.). Abonatuak beste abantaila batzuk ere badauzka abonatu ez denarekiko: ikastaroetan, alogeretan eta zerbitzuetan prezio merkeagoak alegia. Baina abantaila eta 'esku-bidea' oso kontzeptu ezberdinak dira. Eigoibartar guztiek daukate Kirol Patronatuko ikastaroetan parte hartzeko eskubide bera, dagokion prezioa ordainduz gero".



KEXAK

• Ama bat eta bere alabatxoa etorri dira Udalari kexa hau helarazi nahirik: "King Kong etxearen atzeko aldean, ibal ertzean dagoen barandaua benetan egoera tamalgarririko dago. Nire alabatxoa bertara hurbildu denean ohar-tu naiz guztiz erdoilduta eta zuloz beteta dagoela. Urasandiko zubiko barandaua ere antzeko egoeran dago. Ingu-ru hori haurren pasalekua denez, Udalari neurriak har-ditzala eskatu nahi nioke, ezbeharren bat gertatu aurretik".



BAI, ESAN?



Iñigo Yudego
Informatikoa

2000. urtea gero eta gertuago daukagu, eta horrekin batera, baita arazo infonmatiko bat ere, '2000 efektua' izenarekin bataiatu dutena. Hori dela-eta, arazo honen eraginak jakiteko asmoz, Iñigo Yudego informatikoa-rengana jo dugu azalpen eske.

- Zer da '2000 efektua' delakoa?

Zenbait ordenagailuk, programa zaharretan data jartzeko orduan, urtearen lehen bi zenbakiak beti berdina danzkate, aldatzen direnak hurrengo biak dira, piskanaka aurrerantz doazenak. Beraz, 2000. urteko urtarrilaren I a iristen denean, lehenengo bi zenbakiak 19 izaten jarraituko dute eta hurrengo biak 00 izango dira. Honela bada, 2000 urtean beharrean 1900. urtean egongo gara ordenagailu batzuetan.

- Zer eragin edukiko du?

Oraindik ezin dira zehaztu izango dituen ondorioak. Arazorik handienak kontabilitatean, fakturazioan... etorriko dira, hau da, datak garrantzia duen programetan. Etxean, ordenagailua testu tratamendurako edo Interneten nabigatzeko erabiltzen dutenek, apenas igarriko dute aldaketarik.

- Zer neurri hartu behar dira arazo larririk ez izateko?


Datak jartzeko lau zenbaki erabiltzen dituzten programen sistema berrira moldatu behar dira. Baina enpresa handiek moldaketa hori eginda izan beharko luke jadanik. Etxean ordenagailua erabiltzen dutenek, berriz, konprobatu egin beharko dute ea bere ordenagailuak data 2000. urtera aldatzen lagatzen dien.

- Zenbateko kostua izango du adaptazioak gutxi gorabehera?

Oso zaila da kostu zehatza jakitea, hori enpresaren tamainaren eta bertan egin behar diren aldaketaren arabera da.

ESKERTZA

1999ko irailaren 9an, 89 urte zituela hil zen **JOAQUIN REZOLA LANDA**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako dolurninak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Ikasturte hasiera

MIEKO DIRLT KONR|| UAK hankaz gora

Ikasturte hasierak etxeko ekonomian sortarazten dituen gastuei buruz hitz egitea pentsatu dugu aste honetan. Duela egun batzuk egunkarietan ateratako albiste baten arabera, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan seme-alabak dituzten gurasoek 40.000 eta 50.000 pezeta bitartean gastatzen dituzte batez beste ikasle bakoitzeko. Guk, datu horren atzean ezkututzen dena azaleratu nahi izan dugu. Horretarako, hurbilagoak zaizkigun herriko ikastetreetara, akademietara eta klase partikularrak ematen dituzten irakasleenganajo dugu. Inoiz ez da seme edo alaba baten heziketa gaur beste kostatu, poitsikoari dagokionez bederen.

Guraso askok umore gazigozoz hartuko zuten irailaren etorrera eta ikasturte berriaren hasiera. Batetik, gustura egongo dira, beraintzako denbora libre eta bake gehiago izango baitute aurrerantzean. Bestetik, ordea, kurtso berri baten hasierak etxeko ekonomia balantzan jartzen du. Gastuak bata bestearen gainean pilatzen dira. Euskal Flerriko Kontsumitzaileen Elkartearen arabera, Euskal Autonomi Erkidegoko familia bakoitzak 40.000-50.000 pezeta gastatzen ditu ikasle bakoitzeko ikasturte hasieran. Liburuak, jantokia, eskola materiala, ikastetxetara joateko garraioa eta bestelako gastu batzuk batuz ateratako zifra da.

Lehen Hezkuntzako ikasleen testu liburuak 20.000 pezeta balio dute batez beste; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen liburuak, aldiz, 25.000 pezeta. Eskolarako beharrezkoak diren tresnek edo material bereziek (konpasak, hiztegia, arkatzak...)

5.000-7.000 pezeta bitarteko kostua dute, baina hori ere bakoitzaren arabera izaten da. Gasturik handiena, ordea, testu liburuak erosi beharrak sortzen du. Gainera, zenbait argitaletxek urte gutxitan liburuei zenbait aldaketa txiki egin, eta aurreko liburua baliogabe lagatzen dute. Hori dela-eta, anai-arreba zaharragoek ezin izaten dizkiete buruak gazteagoei pasa. Hala ere, zenbait ikastetxetan liburuak gordetzen dituzte, behar dituzten ikasleei lagatzeko.


"Gasturik handiena testu liburuak erosi beharrak sortzen du. Gainera, kurtsoa hasi orduko partikularretan apunttzea arrunta da".

Beharrezkoak dei genitzakeen gastu hauetaz gain, guraso askok arropa berriak ere erosten dizkiete seme-alabei, eta iraileko gastuek gora egiten

dute. Preziorik altueneko koadernoak, konpasak, motxilak, boligrafoak... erostearen ondorioz ere, ezberdintasun handiak sortzen dira familia batetik bestera. Beharrezko materiala bakarrik erositako asko inurrituko lirakeke gastuak. Gainera, kurtsoa hasi orduko partikularretan apunttzea arrunta da, eta baita eskolaz kanpoko ekintzek ere, besteak beste solfeoan, kirolen batean etab. Gastu hauek guztiak irailean pilatzen dira, eta etxeko ekonomia kinka larrian jartzen dute. Zer esanik ez haur bat baino gehiago dituzten etxeetan.

ikasturte berria

1
10



ESKOLA GASTUAK ELGOIBARREN

Testu liburuak	13.000-23.000 pta.
Material berezia*	5.000-10.000 pta.
Hileroko kuotak	3.500 pta. (+/-)
Partikularrak	5.000-9.000 pta. (hileko)
Jangela	280-550 pta. (eguneko)



*Koadernoak, tutegia, bata, konpasa, erregela...

Gastua" { gurasoek Irdatindu beha"



Marian Iernandezek

4 alaba ditu. Gazteenak 12 urte ditu eta zaharrenak, berriz, 22. Ikasturte hasierak etxeko ekonomian eraginik al duen galdetu cliogu, eta honako hau erantzun digu:

Alaba gazteenak, Amaiak, Herri Eskolan ikasten du, eta zorionez ikastetxean bertan uzten dizkiote aurreko urtekoek lagatako buntak. Horrelako ideiak oso ondo daudela iruditzen zait. Liburuak garestiak dira eta laguntza gehiago izan beharko genuke".

Marianen iritziz, ordea, gehiegi exajeratzen da eskolako gastuak direla eta ez direla, "guztiok dakigu irailean gastu extrak izango ditugula. Ez dira bapatean ezerezetik azaldu". Hori dela eta, aurrez planifikatu daitezkeela uste du, "arropak urrian edo abuztuan erosten ditut, eta ez ditut eskolako beste gastu denak irailerako lagatzen. Alaben klase partikularrak ordaintzea gogorragoa egiten zait, solfeon, ingelesean eta beste hainbat gauzatan apuntatuta daude eta hileroko ordaindu beharrekoak dira. Hala ere, ez dakit partikularretara joateko behanik duten edo ez. Gure garaian inor ez zen joaten. Ikasleok elkarri laguntzen genion. Nire iritziz gaur egungo ikasleak gutxiago sakrifikatzen dira. Gurasoek partikulantran apuntatu ditugula baidakite".

Mila Antonek

3 seme-alaba ditu, 8 eta 14 urte bitanekoak. Gorane, Julen eta Maialenen gastuei aurre egin beharra ez dela txantxetako esan digu. "Urtarrileko

aldapa baino gogorragoa da niretzat irailekoa. Eskerrak irailean zer datorkigun jakinarean gainean gaudela, ez dago ezustekorik". Liburutik bakarrik 45.000 pezeta gastatzen dituela aipatu digu, "liburu asko urtetik urtera ezin aprobetxatzea pena bat da. Baina liburu gehienetan idatzi egiten denez, gero ez dute balio. Liburuak baino gastu gehiago ere badaude ordea, kuotak, arropak eta partikularrak, besteak beste". Seme-alaben heziketa garestia dela esan digu, baina beharrezko gastuak direla iruditzen zaio, "garestiak iruditzen zaizkida-

la-eta, ezin ditut liburuak erosteke utzi. Bestalde, orain egiten ditugun gastuak etorkizunean probetxugarriak izan daitezela espem dugu. Seme-alabak heziketa on bat jasotzea garrantzitsua da". Partikularrei buruz duen iritzia ere azaldu digu, "gela bateko ikasle asko partikularretara badoaz, aurreratuago daude eta `besteak joaten direnez`, azkenerako danak partikularra".



Izan al izu por ostekJ riewes 9rik?




MABI JOSE ABAD
15 urte, ikaslea

Piska bat bai. Eskolan inoiz baino lehenao hasi gera eta bueltiak triste ipini nau. Klasiak goizetan eta arratsaldietan eukitzian ezin dogu arratsaldian disfrutau.



AURELIO FERNANOEZ
47 urte, espezialista

Depresiorik ez, baina lanera itzultzea asko kostatu zait. Dena den, urte asko daramatzat lanean eta badakit hilebeteko oporren ostean berriz lanera itzuli behar dela.



TVOMIN VARONA
63 urte, jubilatua

Ez, jubilatua nago, baina negozio txiki bat daukagunez, 20 eguneko oporrak baino ez ditut izan. Lanera ohituta nago, beraz, buelta ez zait horren astuna egin.



REME MENDIETA
32 urte, langilea

Bai, izugarri. Laneko lehenengo egunetan despertadoreak jo eta jaikitzea asko kostatu zitzaidan. Baina, aste bate badaramat lanean, eta pisikanaka ohitzen ari naiz.



NOIVISSRFF SAMMBAL
41 urte, etxekoandrea

Bai, zertxobait bai. Ez dut etxetik kanpo lan egiten baina berriz normaltasunera itzultzeak tristura piska bat sortu dit. Hala ere, jadanik ohituta nago opor osteko bueltara.



ANDRES GABILONDO
37 urte, teknikoa

Tristura piska bat euki dot. Hala ere, hasieria nahiko normala izan da. Oporretatik bueltan lanian hasi eta puntu, beste aukerarik ez dao, aurrea begiratu eta jarraitxu.

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ,
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN, AZTERKETARIK GABE!



9thold en« 44tempt wpxdt, a tectuvm 16 wetedet t.

Batoz informazio eske

„A11⁴, 7¹91

Tel: 943 74 10 11

Miopia

Excimer laser

Lasik

Jose Ignacio Recalde Yurrita

Mediku Oftalmologoa

Laserrarekin interbentzioak131U3ON

Urtzaile kalea 2, 1 · EIBAR Te1,943 20 18 44

fitu BEGIRA



or I 5-et-5 P rj. t

LURRA Aroztegikoa

- Aita eta semea egur bereko ezpala al zarete?
- Batzuek baietz esaten dute, baina nik ezetz uste dut.
- Mundu honetan zer moztu beharko litzateke sustraitik? Hipokresia.
- Zer da egur ustela bezain txarra? Pobretasuna.
- Elgoibarko zein txokotan eraikiko zenuke egurrezko etxe bat? - San Lorentzon.
- Arotz laubidea etxetik al datorkizu?
- Aitona arotza zen, baina nik oso gutxi ezagutu nuen.
- "Emakume ederraren buruan zerrautsa besterik ez" topikoarekin ados al zaude? - Ez, gezur galanta da hori.
- Zein aktoreren etxera joango zinateke konponketa bat egitera? - Aktore baten etxera baino, zine zuzendari batenera joango nintzateke, Amenabarren etxera, hain zuzen ere.
- Pinua kendu eta pagoa sartu. Ados? - Ba, nola ez, berehala gainera. Bai Elgoibarren eta baita Markinan ere.
- Inolz aspertzen ez zaituen pelikula? Airbag.
- Zein da gizarte honetako sitsa? - Dirua, dudarik gabe.
- Bake prozesua bide onetik doala uste al duzu?
- Ez, baina ez hemengo jendeak nahi ez duelako, Madrilek horretarako interesik ez daukalako baizik.
- Abesti ahaztezin bat? - Santanaren "Samba para ti".
- Asmakizunik onena? - Sagardoa zuzen zerbitzeko botilaren ahoan jartzen den tresna.
- Zerk behar du gizarte honetan berehalako konponketa? Komunikabideek eta jendearen psikologiak.
- Egur onak ez du altzaria egiten. - Ez, altzari onak egin daitezke erraminta txarrekin ere. Lana eta trebezia behar dira altzari ona egiteko, eta ez erreminta onak bakarrik.
- Zer egiten zaizu altzariak alde batetik bestera eramatea bezain astuna?
- Hilabete guztien hasieran dirua bankura eramatea.

Jon Gurrutxaga

99/00 eushera ahora ahora eushera



EUSKARA IKASTAROAK

Maila eta ordu guztiak

EGA

I Irakaskuntzako 1. eta 2. perfilak

Euskara batuan irakurtzen

eta idazten ikasteko



AEK EUSKALTEGIA PLAZA TXIKIA, 3 Tel 943 74 13 32

PlastE-mail eIs entiak kontenedoreak jarriks gfituzle Eligelharnu urglaren amaieran

Kolore laranja izango dute eta papera jasotzeko edukiontzien aldamenean egongo dira

Debabarreneko Mankomunitateak plastikokoak eta latak batzeko sistema berria jarriko du martxan urriaren amaieran Elgoibarren, behin kontenedore laranja dagokien lekuan kokatu ostean. Izan ere, *Serbitzu* enpresari eman dio bailarako ontziak eta plastikokoak batzeko ardura.

Badira hilabete batzuk kontenedoreak Urruzunoko zabortegean gordeta daudela, baina orain arte ardura zein enpresari eman zain egon direnez, ez dituzte behar den tokian ipini. Lanak *Serbitzu* enpresari egingo ditu eta horren truke 12 milioi pta. jasoko ditu urtean.

Elgoibarren guztira zenbat kontenedore jarriko dituzten erabaki gabe dago oraindik, baina Debabarrenean, gutxi gorabehera, 500 biztanleko ontzi laranja bana ipiniko dutela adierazi digute Mankomunitateak.



Plastikoak, ontziak eta tetra-brikak batzeko ontzi bana jarriko dute 500 biztanleko. Mankomunitateak informazio kanpaina egingo du proiektuaren berri emateko.

teko arduradunek. Zakarrak eta papera jasotzeko kontenedoreen alboan ipiniko dituzte ontzi berri hauek eta plastikozko ontziak, tetra brikak eta latak bota ahal izango dira bertara. Kontenedore bakoitzak 100.000 pezeta inguru balio ditu eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko du kostua.

Ontziak Legazpira

Plastikoak, ontziak eta latak kamioi batean jaso ostean, Legazpira eramango dituzte, bertan birzikla ditzaten. Lantegi honetan kontenedoreetara botatako ontziak (plastikozko botilak, latak eta tetra-brikak) banatu egingo dituzte sistema modemo baten bidez. Ondoren birziklatu egingo dituzte eta berri erabilgarriak izango dira.

Kontenedore berriak direla-eta, irailean Mankomunitateak informazio kanpaina bat egiteko asmoa du, jendea ontzi laranja hauen erabilpenaz jabetzeko, eta horretarako elgoibartar irailean martxan jartzeko zen proiektua unira atzeratuko denez, herriaren erabilpena izango dute kontzientziazteko nahikoa denbora.

1.200 txerto jarriko dituzte Elgoibarko Osasun Zentroan gripearen aurkako kanpainan

Urriaren 30era arte izango da txertoa jartzeko aukera

riripearen aurkako urteroko kanpainak. Jai irailaren 15ean hasi da eta urriaren 30era arte luzatuko da. 65 urtetik gorako guztiei eta gaixotasun sendaeziaz dituzten 65 urtetik beherakoei bakuna jasotzeko gomendioa luzatu nahi diete Elgoibarko Osasun Zentroko erizainek, oso gomendagarria baita. Txertoa jartzeko ez da aurrez txandarik eskatu behar, goizeko 9:00etatik 12:00etara bitartean Osasun Zentrorra joatea eta txertoa jartzeko eskatzea nahikoa izango da. 65 urtetik gorakoek osasun txartel indibiduala, gizarte segurantzako kartila edo NAN-a eraman beharko dute. Gainontzekoek ohizko medikuaren-

9:00etatik
12:00etara
bitartean
jarriko dira
txertoak
Osasun
Zentroan.



gana joan beharko dute bolantea eskatzera. Arrisku taldeen artean, bihotzeko gaixo kronikoak, biriketako gaixo kronikoak, diabetikoak eta giltzurrun edo gibekeko gaixo kronikoak daude. Aurreko urteetan bezalaxe, Altzolako eta baserrietako bizilagunek bakuna hartzeko ez dute Osasun Zentrorra joan beharko, erizainak joango baitira bertara. Horretarako ordua eta eguna aurrez jakinaraziko dute. Aurten Elgoibarren gripearen aurkako 1.200 txerto jarriko dituzte. Bakuna besoan jartzen da eta ez du ia minik ematen. Txertoa jan ondoren, besotan, ziztatutako lekuan, gorritasunen bat edo gogorruneren bat ager daiteke. Inoiz sukarra, ondoeza edo hotzikarak ere eragin ditzake bakunak.

Ettiehizilla berriak erahiltzen ari dira San Bartolome kalean

San Bartolome kalealc itxura berri izango du laster. Piskana-ka etxebizitza zaharrak bota eta berriak eraikitzen ari dira El-goibarko alde zaharreko kale honetan. Obrak San Bartolome kaleko 22, 27 eta 29 portaletan egingo dituzte. Batetik, lau so-lairuko edifizio bat eraikiko dute bertan, eta zortzi etxebizitza eta bi lokal komertzialentzako lekua izango da eraikinean. Bestalde, 22. portalean egingo den edifizioan guztira 6 etxebizitza eta bi duplex egongo dira. Txikienak 92 m² izango ditu eta handienak, berriz, 160 m². Bi edifizioen altuera Udaleko arau subsidiarioek baimentzen dutena izango da, 14,40 metro, hain zuzen ere. Obrak martxan daude, beraz, laster herriko alde zaharra arupegi berriarekin ikusi ahal izango dugu herritarrok.



Salsa ikastaroa Guass dantialekuan

Urriaren 7an hasiko den salsa ikastaroan parte hartu nahi duten guztiek irailaren 25a baino lehen eman beharko dute izena 696 10 90 88 telefonora deituta. Arlen dantzariak izango du ikastaroaren ardura eta berak esan digunez, dantzarako gogoia duen edozein adinetako jendea joan daiteke salsa ikastera. Klaseak ostegunetan izango dira gaueko 20:30etik 22:30ak arte *Guass* dantzialekuan. Arlenek elgoibartar guztiak animatu nahi ditu salsa ikastera.



Haritz Dantzari Taldea Amurrioko Dantza Jaialdian izango da, hihar, hilak 18

Haritz Euskal Dantzari Taldeak Gipuzkoa ordezkatzeko du hilaren 18an, larunbatean, Amurrioko dantza jaialdian. Kalitate handiko jaialdia izatea espero da, Euskal Herriko probintzia bakoitzeko ordezkari onentsuenak izango baitira bertan. Astebete beranduago, irailaren 25ean, urtero bezala San Migelgo jaietan dantza egingo dute Haritzekoek. Taldeko dantzariak beste hainbat lekutan aritzeko eskaintzak ere izan dituzte, baina azkenean, ezezkoa eman behar izan dute agenda beteta daukatelako. Bestalde, Haritz Dantzari Taldeak antolatuta, folk musika kontzertua izango da Elgoibarren urriaren 9an. Albaniako *Fandlia Lela de Pernzet* taldea arituko da Plaza Handian.

• BARREneko helbide elektronikoaren aldaketa

Gure astekariko helbide elektronikoa aldatu dugula-eta, irakurleoi janarazi nahi dizuegu aurrerantzean posta elektronikobidez gurekin harremanetan jartzeko helbi dea **honako hau izango dela: barren&topagunea.coni**. Beraz, edozein mezu bidali nahi izanez gero, gogoratu helbide berria hori dela.

• Haur saharauiak ez dira udan Elgoibarrera etorri

Oporretan Elgoibarko familietara etortzekoak ziren ume saharauiek ezin izan dute Euskal Herrira bidaiatu. Ongizateko zinegotziak adierazi digunez, "marrokien hegazkinetan etorri behar ziren eta hauek turismoa lehentasuna eman diotenez, umeak bazterrerara utzi dituzte. Haur saharauiak azken ordura arte zain izan dituzte, eta azkenean, Kanariar uhartera eta Malagara bakarrik ekarri dituzte abuztuaren hasieran". Beraz, aurten ez dira ume saharauiak Elgoibarrera etorri.

• Altzariak zabarberritzeko ikastaroa urrian hasiko da

Eskuz Eskulan Taldeak altzariak zabarberritzeko antolatu duen ikastaroa datorren urrian hasiko da. Ikastaroa asteartean eta ostegunetan izango da arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara edo 18:00etatik 20:00etara. Nieves Maidagan izango da irakaslea eta klaseak bi hilabetez luzatuko dira. Izena emateko azken eguna urriaren la izango da, eta ikastarora joan nahi duenak telefono honetara deitu beharko du 13:00etatik 15:00etara: 943 74 14 49 (Arantxa).

277 pezetako kostua izango dute SER Pedlina auzoko erreka- kako obrek Ibaiaren zabalera berria 38 metrokoa izango da

Udalak jaso berri du San Pedro auzoko erreka-
ren uholde arriskuei
aurre egiteko obren proiektua.
Obrek 277 milioi inguruko kos-
tua izango dute, eta behin buka-
tuta, bizilagunak uholdeen
arriskutik kanpo lasai biziko di-
ra. Udalak proiektua egiteko ia
2 milioi gastatu ditu, gainera
segurtasunari, osasunari eta
kontrolari buruzko beste azter-
keta bat egiteko 1.856.000 pe-
zeta jarri behar izan ditu.

Gillermo Garate alkatearen
esanetan, "proiektua esku artean
daukagu, beraz, obrak laster hasiko dira. Obra Hidraulikoetako ar-
duradunekin adostutako lana denez, hilabete gutxiren buruan lanak
amaituta egongo direla uste dugu". Arazoa erreka-
ren zabalera sortzen du, batez ere Lerungo industrialdea pasatu eta berehala dagoen
bihurguneko estuguneak. Errekak gora egiten duenean, urak Karki-
za azpiko lur-hormaren aurka jotzen du, eta batzuetan San Pedro



Obrak amaitu ostean, San Pedroko auzokideak lasai bizi-
ahal izango dira uholde egoteko arriskua gutxituko baita.

auzoko etxeetara heldu izan da
ura. Hori dela-eta, erreka zabal-
tzea erabaki dute, eta 38 metroko
zabalera izango du hemendik au-
rerra. Errekaren ezker aldean, Le-
rungo industrialdeko penintsula
artifizialari zati bat kenduko diote,
beraz, ia enpresen alboko errepi-
dera helduko da, *Lagun, Mancisi-
dor, Ojmar* eta *Bernardo Eena-
rro* lantegien alboko bideraino.
Gainera, erreka alboko lurra ere
kendu egingo dute ibaiaren zaba-
lera handitzeko, eta 4 metroko pa-
reta eraikiko dute industrialdearen
eta erreka-artearen.

Zubi berria

Bestalde, eskuman, Karkizaoko bidearen alboan, San Pedro eta
San Antolin elkartzen diren lekuan, eskoilera bat egingo dute; honek
ere uholdeak eragozteko balio du. Gainera, Udalak zubi zaharra bo-
tatzeko eta bere ordez pilastrarik gabeko pasabide bat eraiki tz,eko as-
moa du; honela, uholde arriskua gutxitu egingo da.

ITIROLA EMKARAZ IKASTAROAK"

999/2000

LIKASTARO OROKORRAK 1

GAIAK: Entrenamendua, planifikazioa, kirol psikologia, dieta, doping-a,
legedia, euskal selekzioa, hizkuntza kirolean...

NORENTZAT: kirol monitore, entrenatzaite eta abarrentzat.

EGUTEGIA:

1. SAIOA: 1999ko irailak 30, urriak 1 eta 2.
2. SAIOA: 1999ko abenduak 27, 28 eta 29.
3. SAIOA: 2000ko apirilak 28 eta 29.

IKASTARO ESPEZIFIKOAK

FUTBOLA, PILOTA eta ESKUBALOA

DEBABARRENA:

1999ko urriak 25 eta azaroak 29.
2000ko urtarrilak 31, otsailak 28, martxoak 27 eta maiatzak 29.

*OHARRA: Saio praktikoak izango dira.



IZEN-EMATEA:

Olaizaga kiroldegian
irailaren 22a baino lehen.



INFORMAZIO TELEFONOA: 943 74 44 15

xiki **BARREN**

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 56. GEHIGARRIA



J oan den asteen eman zioten hasiera ikastetxe gehienetan ikasturte berriari. Udako goiz lasaien eta isilen ondoren, gure herriko kaleetan entzuten hasi dira umeen berriketaldiak eta hots alaiak. Herri Eskolan, ere oporraldien ondoren, irakasleentzat, ikasleentzat eta gurasoentzat iritsi da liburu artean orduak igarotzeko garaia. Nahiz eta egunerokotasunera itzultzea denori kosta egiten zaigun, lerro hauen bidez, ikasturte berri honi gogoz ekiteko eta hasiera bikaina emateko desioa luzatu nahi dizuegu denoi.

te

Bi pertsona dabilta hegan hegazkinean. Pilotua, barre batean dabilenez, kar kar kar, azkenean atzean doanak galdetzen dio:
— Zer dela-eta horrelako barreak?
— Ba, zera nuen buruan —erantzuten dio pilotuak—: zer esango ote duten zoroetxean, ihes egin dudala ohartzean!



Jakitunen eskutik

Eskolara buelta

Eis erriz eskolara itzultzea beti ondo hartzen ez den errutinara bueltatzea izaten da ume askorentzat. Irailean gurasoak lanean hasten dira eta oporrekin gogoratze hutsak larri jartzen ditu batzuetan. Baina gurasoei ezezik, haurrei ere gauza bera gertatzen zaie bi hilabeteko atsedenaldiaren ostean eskolara itzultzen ciirenean.

Ikasturte berria hasteak badu berezitasunik. Haurrak eskolako lagunekin berriz elkartzen dira eta udako abenturak kontatzen dizkiete elkarri. Gainera, irakasleak eta liburuak ezberdinak izan ohi dira, eta hainbat hilabeteko atsedena ostean, ekintza berriak egitea sarritan gustagarri ere gerta dakieke gaztetxaenei.

Hala ere, haurrak ez dira eskolara nahi dutelako joaten, gurasoek agintzen dietelako baizik. Eta nahi duten denbora libre guztia izatetik erlojuaren menpe bizitzera pasatzea oso astuna izan daiteke. Gainera, azterketak berehala iristen direnez, egunerokotasunerako itzulera ez da horren goxoa izaten.

Gero eta gehiago dira haurrak eskolaz kanpoko ekintzak egitera bultzatzen dituzten gurasoak. Horrek umeei jolaserako denbora kentzen die, beraz, egokiena da, gurasoek eta hurrek batera aukeratzea ekintzak, umeen gustukoak izan daitezen.

Baina hurrek baino buruhauste gehiago izaten dituzte gurasoek. Liburu garestiez, eskola materialaz, arropaz etabarrez gain, hurrek eskolan lortutako emaitzek ere urduri jartzen dituzte. Oporretatik eskolara bueltatzea horren astuna izan ez dadin, hona hemen aholku batzuk:

- Haurrak animatu egin behar dira eskolako lehen eguna hurbiltzen ari den heinean. Eskolara joatea gauza positiboa dela esango diegu eta beraiekin liburuak, materiala... prestatuko ditugu.

- Umeek eskolan egiten dutenari buruz jakinmina erakutsi behar dugu. Inolako ardurarik jartzen ez badugu, beraiek ere interesa galduko dute. Horretarako, komenigarria da bileretara jaatea eta irakasleekin hitz egitea.

- Garraioa eta jangelak egokiak diren ala ez jakitea komeni da.

- Kontua ez da umeei gauzak buruz ikastea, hezitzea eta ikasiz haztea baizik, horregatik haurrei kaso egiten ikasi behar dugu.

- Ikasturtea energiari kargatuta eta pozik hasi behar da. Izan ere, egunerokotasunera bueltatzen ondo jakinez gero, ez zaigu horren astuna egingo.

ITURRIA: Consumer aldizkaria

Zer iritzi daukazu

te-oe ~

buruz?



tiliVAVA4 jMitle4^ 41^44 'ZiN 042,144" a4 IZOaivItliMAT e/4 P44Gt ~

p-14,4, 1,1,jc etoldie4, 2144.

ANE MIREN SERRANO, 5 urte



Evt. 444, imv9,4142' z P4444 0+444%, taMA/1141)Z14% el4 41-f(14Z

44s1"444444v.

MIRIAN BERISTAIN, 9 urte.



74.44/44 ,04,44 Am44, 4,z14, 4444 /443(4,e4, .144144/.

ION SANCHEZ, 12 urte



**11)SI
GAIRCIA
12 urte**

Galde debalde

- 1- Telehistan zein saio ikusten duzu gustura?
- 2- Kolore bat.
- 3- Gehien gustatzen zaizun ogitartekoa?
- 4- Zerk tristetzen zaitu?
- 5- Zein animalia izan nahi zenuke?
- 6- Ohera joan aurretik egiten duzun azken gauza?
- 7- Nori egingo zenioke elkarrizketa bat?
- 8- Bainua ala dutxa?



**13FLIESI
COLIDIDIS
7 urte**

- 1- Kirolak.
- 2- Urdina.
- 3- Txokolategkoa,
- 4- Partido garrantzitsu bat galtzeak.
- 5- Arraina.
- 6- Hortzak garbitu.
- 7- Olano wirrindulariari.
- 8- Dutxa, azkarragoa delako.

- 1- El Patito feo, marrazki bizidunak.
- 2- Urdina.
- 3- Txorizo bokadiloa.
- 4- Jotzen baldin banaute negar egiten dut,
- 5- Zaldia.
- 6- Hortzak garbitu.
- 7- Nire lagun bati.
- 8- Bainua, lasaiagoa da-eta.

Zer da 4dote-ewa-



**Lagunen artean
esaten den gauza
bat. Beste Iagunei
esaten badiezu salati
deituko zaituzte.**

SHEILA 131_/_LSIC/C IC UKTIE



**Konfiantza duzun
pertsone bati gauza
bat esaten
dionuzenean eta beste
guztiei ez.**



**Gauza inportanteak
ondo gordetzea.**



**Sekretua da gauza
bat kajoi batean
gordetzen ez dena,
bihotzean baizik.**



**Zerbait gordeta
edukitzea eta inork
ez jakitea.**

AKAISI /4ZILJ ALASIC 13 UKT I



**Esan ezin daitekeen
hitz misterioitsua.**



Mila
MIasev'za

a
u -
gerza 40 urte-
ko elgoibarta-
rra da eta lan
kontuek bul-
tzatu zuten
herria uztera.
`Senarrak
ama elgoibar-
tarra izan
arren, Lleidan

jaiotakoa da eta Bartzelonan ikasi ondoren, bertan sortu zitzaion lanean hasteko aukera. Hori dela-eta, 8 urte pasa genituen Bartzelonan. Gero, berriz mugitu beharra izan genuen, eta duela 9 urtetik Getxon bizi gara". Mila eta bere senarra, Eduardo Ibañez, Areeta auzoan bizi dira. Getxok 4 auzo ezagun ditu; hauetako bi Algorta eta Erromo dira. Milak, kostaldean kokatuta dagoen herri polita dela azaldu digu, "Ez dago lantegirik, zerbitzuak dira nagusi eta turista asko etortzen da udan. Herria oso txukun zainduta dago. Bestalde, leku guztietatik etorritako jendez osatutako hena izanik, ez dago euskal giro handirik eta nahiko zaila da euskaraz hitz egitea". Mila euskara ikasten edo duen maila hobetzen ari da euskaltegian. Hala ere, berarekin solasean aritu ostean, ederto moldatzen dela erakutsi digu. Asteburuetan Elgoibarrera etortzen saiatzen dela ere esan digu, "famiakoekin eta lagunekin kontaktua ez galtzeko beharrezkoa da noizean behin elkar ikustea, eta ahal dudan guztietan ematen dut bueltatxo bat Elgoibartik. Azken finean, ez naiz urrunegi bizi". Bere zaletasun nagusia igerilekuan igeri egitea dela aipatu digu eta baita hondartzan pasiatzea ere.

SWISS - 3M1-31

iitaF10 EXPZE

**bidai agentziak
babestutako ataria**

Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12

Gregoria Aranberri Arostegi (1907-1989)



- 1907ko martxoaren 12an jaio zen orain dela gutxi bota duten `Polleria Errezabal' jatetxea zegoen etxebizitzan. Baratza eta oilategia zituzten eta Gregoriak bertan lan egiten zuen familiari laguntzeko. 7 anai-arreba izan ziren, bera hirugarrena.
- Haurtzaroko ikasketak Madalako ospitaleko eskolan egin zituen. Geroago, Erasmo jaunaren eskolan burutu zituen gaztaroko ikasketak.
- Garaiko ohiturei jarraituz, Madalako elizako arkupeetan biltzen ziren Gregoria eta bere lagunak. Denbora asko pasatzen zuten bertan, txantxetan eta jolasean. 13 urterekin, Pedro Azkoiti ospetsuaren abarke-ta lantegian hasi zen lanean.
- Urte batzuk beranduago, bere aitak, `Bar Lugarixa' ireki zuen. Izena bere sendiak Azkoitian zuen base-riaren omenez jarri zion, baina `Bar Txerri' esanda ezagunagoa zen herrian, aita txerri tratularia baitzen. Gaur egun `Oraiko' taberna dagoen lekuan zegoen, eta estankoa eta ostatua ere bazituen. Gregorik eta bere ahizpak lan mordoa egin zuten urte luzeetan negozia aurrera ateratzeko. Bibrikeria bat aipatzearren, bere anaiak ez ei zuen inoiz ardorik zerbitzatu.
- Gregoria, Mariaren amaren kongregaziokoa izan zen. Erromerietara joatea asko atsegin zuen. `Agarraua' galerazita zegoen garaietan Madarixako erro-meriara ere joaten zen, eta baita Arratera, Urkiolara etabar-era ere.
- Raimundo Irustarekin ezkondu zen, eta ez zuten familiarik izan. Oso ezaguna izan zen herrian. Begiratu serioa izan arren, oso alai zen, sinesmen handikoa eta zintzoa. Laguntzarik behar izanez gero, berarengana jotzarekin nahikoa zen.
- Irakurtzea asko gustatzen zitzaion, eta gogoko zuen kartetan jokatzera. Egunero egiten zuten karta saioa lagun artean.
- 1989ko apirilaren 12an hil zen, 82 urte zituela.

Juanito Gorostiza



Pedro Muguruza, 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR

454

Urrutira deitu gabe
bertakook segituan
konponduko dizugu
igogailua.

943 20 35 15
ABERIAK 943 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa)
o 20600 EIBAR



A

ste honetako argazkia 1953an atera zuen Julian Oteizak. Guri elgoibartar batek eskuratu digu. Kon-tatu digunez, garai hartan normalagoak ziren uholdeak, beraz, ez da harritzekoa argazkian agertzen diren hiru mutil gazteak horren irribartsu egotea. San Bartolome kaleko 'Irueta' tabernaren aurrean atera zuten erretratua tabernako bi semeak


eta pareko dendako mutila daude. Kalean ikus daitezken argiengatik jaiak edo Gabonak zirela pentsa genezake, baina ez. Azaldu digunez, urriaren 15ean Santa Teresa egunean izan zen ufala. Ikus daitekenez, kalea urez beteta dagu, eta batzuk lanean ari ziren bitartean, hiru gazte-ek atsedenerako tartean argazkia ateratzeko aprobetxatu zuten. Erretratuan agertzen direnak, ezkerretik eskumara **Felix Irueta (t)**, **Horencio Serrano** eta **Patxi Irueta** dira.



*4 **tfr**

I. URTEURRENA

1998ko irailaren 16an, 48 urte zituela hil zen
JESUS CARMELO GARITAGOITIA LOYOLAren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da
 Parrokian larunbatean, hilak 18, arratsaldeko 19:00etan.
 Joaten zaretanoi eskerrak alde zaurretik.



I. URTEURRENA

1998ko irailaren 22an, 70 urte zituela hil zen
RAFAEL PEREZ HERMECHEOren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da
 Parrokian hurrengo larunbatean, hilak 25, arratsaldeko 19:00etan.
 Joaten zaretanoi eskerrak alde zaurretik.



Entrenatzaile eus laldamak preslaRmito llastsroa Elgoibarren

Debarroko `Kirola Euskaraz' programak entrenatzaile, monitore, gestore, eta abarrentzako ikastaroak antolatu ditu. Besteak beste, entrenatzaile eus laldunak prestatzeko ikastaroa izango dugu Elgoibarren.


Bi ikastaro mota izango dira: batetik ikastaro orokorrak, 27 orduko iraupenekoak iraila eta apirila bitartean. Bestalde, ikastaro ezpezifikoak ere izango dira, futboleko, pilotako eta esku-baloiako monitoreentzat eta entrena-



tzaileentzat. 12 ordukoak izango dira, urria eta maiatza bitartean. Ikastaroa emateaz arduratuko diren irakasleen artean kirolari famatuak

daude. Deba arroko udaletako Euskara eta Kirol Zerbitzuek 1993 urtean sortu zuten programa hau eta ikasturte honetan erronka berri bati egingo diote aurre, Batetik, Deba arroan zentratuko da euren lana eta bestetik, ikasturte honetarako prestatu duten programa eskola kiroleko monitoreei eta klubetako entrenatzaileei zuzenduta dago. Beraz, entrenamenduak euskaraz egin ahal izateko prestakuntza jaso nahi duzenok deitu honako telefono honetara: 943 74 44 15. Ikastaroak doan dira.

AITOR ELKORO eta FELIX IÑURRATEGIK ERE I KIROLA EUSKARAZ



AITOR ELKORORO
Pilotaria

KANPAINAK BULTZATZAILE EZAGUNAK IZAN DITU, AITOR ELKORO PILOTARIA, FELIX IÑURRATEGI MENDIGOIZALEA. ETA JULEN MASACH ERREALEKO PRESTATZAILE FISIKOA BESTEAK BESTE. BAILARAKO KIROLARIK DIRENEZ, AITORREKIN ETA FELIXEKIN EGON GARA EUSKARAREN GAIA NOLA BIZI IZAN DUTEN ETA NOLA IKUSTEN DUTEN JAKITEKO ASMOZ.

- 1-Mutikotan, eskola garaian, kirola egiten zenuenean, nola egiten zen? Euskaraz akaso?
- 2-Zure oraingo kirol jardueran zein da egoera? Azken urteotan aldaketarik somatu al duzu?
- 3-Nondik nora ikusten duzu hobekuntzarako bidea? Nola baloratzen dituzu Kirola Euskaraz-ek antolatutako ikastaroak?

1- Guk, eskola barruko kirol ekintzetan erdaraz egiten genuen. Eskolaz kanpo, berriz, Oskarbi Kultur eta Kirol Taldean ibiltzen ginen Elgetan, eta beti euskaraz egiten genuen bertan, bai gure artean eta baita monitoreekin ere.

2- Orain profesionaletan denetik dago. Gehienbat pilotarien artean euskaraz egiten dugu, baina Gipuzkoakoekin bakarrik. Aranzeta daukat Bodllero eta berarekin euskaraz egiten dut, prepartzailearekin, ordea, gazteleraz. Gaurko egoeran ez dut nik aldaketa handirik somatzen.

3- Ba, niretzat formazio bidea inportantea da. Gure garaian, gauzak, bakoitzak bere kontura ikasten zituen, eta alde horretatik `Kirola Euskaraz' -en ikastaroak interesgarriak iruditzen zarzkit, gauzak hobeto ikasteko.



FELIX IÑURRATEGI
Yendizale'

1- Gure inguruan orokorrean giro euskalduna zegoen. Herri txiki bateko giroa izan dut eta kasu hauean euskara gehiago erabiltzen da. Batzuetan entrenatzaile batzuk erdaldukin izaten ziren eta baita taldekide batzuk ere, baina orokorrean giroa euskalduna zen.

2- Garbi dago mendiko giroa ez dela txarrena, baina oraindik asko hobetu daiteke. Oraindik gaztelera da nagusi baina euskara ere nahiko erabiltzen da. Askotan, espedizioko kideen arabera hitz egiten da. Komunikabideetan ere gehiena gazteleraz entzuten eta idazten da. Hala ere, zenbait jende badabil euskaraz lan bikaina egiten.

3- Nik hobekuntzarako bidea sentsibilizazioaren aldetik ikusten dut, hori da landu beharrekoa. `Kirola Euskaraz' egitasmoak bide hori jarraitu behar duela uste dut, eta ikastaroek hor joko eman dezaketela iruditzen zait.

Futbola, 1999/2000 denboraldia

Euskal Ligako Jubenilak eta nesken Iddeo

Pasa den astean Haundi futbol taldearen berri eman genizuen. Aste honetan eta datozenetan, berriz, Club Deportivo Elgoibar Elkartearen baitan dauden beste talde batzuk aurkeztuko dizkizuegu. Hona hemen Euskal Ligako jubenilak eta nesken taldea.

Euskal Ligako Jobeollak



A tzean, ezkerretik eskumara: **Xabi Alonso** laguntzailera, **Paul Luque**, **Gorka Zabala**, **Jaime Fernandez**, **Antton Mendizabal**, **Andoni Mujika**, **Javier Egea**, **Ignazio Gonzalez**, **Asier Mujika**, **Iñigo Gurrutxaga**, **Cristian Pelayo**, **Julen Zabala** eta **Txomin Santos** entrenatzailea. Makurtuta: **Mikel Armendia**, **David Luque**, **Jon Garcia**, **Gurutz Kintano**, **Imanol Kalleja**, **Juan Antonio**, **Ion Angulo**, **Ibai Etxabe**, **Mikel Bilbao** eta **Iñigo Leon**. **Ion Larrañaga** falta da argazkian.

Aurten talde bakarra arituko da jubeniletan, Euskal Ligako jubenilak hain zuzen. Pasa den zapatuan jokatu zuten estreinako partidua Loiola Indautxu bizkaitarren aurka, eta 0 eta 1 galdu zuten. Txomin Santos entrenatzaile azkoitiarrak aipatu digunez, "iazko taldetik aldaketa asko izan dira, guztira 7 baja izan ditugu eta 3 jokalarik futbola utzi beharra izan dute ikasketak direla-eta. Bestalde, 5 jokalarik kadete mailatik igo dira. Taldeko jokalariei elkar ezagutzea eta sasoian jartzeko denbora piska bat falta zaie". Txomin Erregionaleko entrenatzailea izan zen Elgoibarren, mailaz igotzea lortu zuten denboraldian hain zuzen. Bere esanetan, "sailkapenari begiratzea baino garrantzitsuagoa da jokalarion ateratzen laguntzea. Gure helburua jokalariek goragoko mailetan jokatzeko prestatzea da. Jokalariek gogo eta ilusio handiak izaten dituzte adin hauetan, baina entrenatzaileok arazo gehiago izaten ditugu gure ideak ulertarazteko".

Neskak



A tzean ezkerretik hasita: **Roberto Garcia** entrenatzailea, **Nerea Iriondo**, **Ruth Gurrutxaga**, **Ivana Ortueta**, **Amaia Epelde**, **Oihana Chico**, **Monica Garcia**, **Eva Rodriguez**, **Lorena Babarro** eta **Vanessa Ortueta**. Makurtuta: **Irene Elorza**, **Maidier Rojas**, **Itziar Arizmendi**, **Anabel Rodriguez**, **Miriam Garcia**, **Mireia Huidobro**, **Leire Rodriguez**, **Marta Diez** eta **Alberto Hermindez** entrenatzailea. Argazkian falta dira **Patricia Menor**, **Amaia Barrenetxea** eta **Laura Mujika**.

Hil honen 19an emango diote hasiera ligari Bergarako taldearen aurka. Aurten erregional mailan daude eta entrenatzaileak adierazi digunez, "ahal bada liga irabazten saiatuko gara aurten ere. Iaz bigarren postuan amaitu genuen eta aurten sailkapen hori gainditzeko gogo itzelak ditugu".

• Mintxeta Atletismo Taldeko entrenamenduak irailaren 20an hasiko dira

Mintxeta Atletismo Taldekoek aditzera eman nahi dute, lehenengo entrenamendua irailaren 20an, astelehenan, izango dela. Entrenamenduak, astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan izango dira, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara, Mintxetako pistan. Deialdia 7 urte baino gehiago dituzten neska-mutuei luzatuko diete. Interesatuak lehenengo entrenamendura gurasoren batekin azaldu beharko dira, taldeko bazkide fitxa betetzeko.

Gipuzkoako Herri Arteko Bertsolari Txapelketa Eigolbarte [larsookin IllsogEn

2L

Fib 35°

TTrtero bezala, uda honetan ere jaialdi ugari izan dira mundu osoan. "Jaialdi" hauek ezagutzen ez ditudanez, Benicassimgo giroa ezagutzeko erabakia hartu nuen. Bertara heldu orduko, ederki somatu genuen zer nolako giroa arnastu beharko genuen bidaiari ahalik eta etekin gehien ateratzeko, izerditan igaro baikenituen bertan pasatako lau egunak. Termometroak 35° markatzen zituen.

Talde interesgarri eta ezaguen bat entzuteko idearekin joan nintzela kontuan hartuz, lehenengo bi egunetan ez nuen ezer aipagarri ikusi eta entzun. Jende ugari mugitzen zen hiru eskenatokietan. Talde ezagunak eskenatoki handiengan aritzen zirenez, jende gehiena bertara hurbiltzen zen, *Suede*, *Blurred* edo *Chemical Bros* ikustera. Jasangaitza zen bertan egiten zuen beroa; gainera, talde gehienek ez zuten kalitate handirik erakutsi eta horrek itolarria areagotu zion. Azkenean, iganda heldu zen eta horrek lehen sorpresa ekarri zuen, arratsaldeko 17:30ean, *Monsieur DOMINIQUE* A, benetan (...). Gauean *Jon Spencer blues explosion* taldeak hezur guztiak mugiarazi zizkigun beraien rock eta sexu nahasketarekin (gertaera ahaztezina). Ondoren *Massive attack*-en doinuek misterio pittin bat jarri zuten gau bertan. Hurrengo egunean etxera. Balantzea? Positiboa baina... ez noa berriro... hori uste dut behintzat.

Iban Urizar

1985ean, Ternando Amezketarra Saria'n hainbat herritako bertsolariak taldeka lehiatu ziren elkarren aurka. Ordutik urte batzuk pasa dira, baina aurten, eredu horri eutsiz, Gipuzkoako Herriarte Txapelketa antolatu dute. Txapelketan adin, estilo eta jatorri askotako bertsolariak arituko dira taldeka. Deba Behean ere eratu dute txapelketara aurkezteko talde bat, eta bertan hiru elgoibartar daude: Jabier Arrizabalaga "Ziarda", German Meabebasterretxea eta Agustin Irusta. Guztira 24 talde dira, eta kanporaketak egin ondoren, 12 talde geratuko dira.



Atzean Meabe eta Ziarda bertsolariak. Aurrean, ezkerretik hasita, A. Irusta, epaimahaiko kidea.

Lehen kanporaketa horietako bat Elgoibarren jokatu da, San Migel auzoko jaietan, datorren ostiralean, hilaren 24an. "Urtero auzoko jaietan bertsoak leku berezia izan ohi du, eta bertsozale ugari dagoenez, Murkaikupe pilotalekua aukeratu dugu giro ona sortuko delakoan. Gainera, kontuan izan behar da bertsolarietako bat auzokoa dela", adierazi digute taldeko kideek. Kanporaketa Deba Beheko taldeak azpeitiarren aurka kantuan neurtuko ditu indarrak. Gure bailarako taldean hiru bertsolari (.Iabier Arrizabalaga, German Meabebasterretxea eta Juan Mari Narbaiza), gajartzaila bat (Mariasun Oteiza) eta epaimahairako pertsona bat (Agustin Irusta) daude, hiru elgoibartar eta bi eibartar hain zuzen ere.

Talde aurkariari buruz galdetu diegunean, arerioen taldea "fuertea" dela esan digute. "Azpeitiko taldean plazetan eskarmentu handia duten bi bertsolari daude, Gorrotxategi eta Lazkano. Urko Egaña bertsolariari buruz ez dugu erreferentzia

zuzenik". Hala ere, txapelketaren helburua bertsozaleek parte hartu eta gozatzea denez, ahalik eta saio onena egiten saiatuko dira.

Afari osteko prestaketa

Bailarako zenbait bertsolarik aspalditik izan dute elkartzeko ohitura bertsotan egiteko, baina azkenaldian bilerak sarriago egiten dituzte eta formalidade handiagoarekin, "HaIa ere, bilera hasteko beti egiten dugu afaria, ohitura onak ezin dira baztertu txapelketa dela-eta", esan digute bertsolariak.

Txapelketa honetarako dauzkaten helburuei buruz ere galdetu diegu eta hara zein izan den beraien erantzuna: "plazetan maila txukuna emateko derrigorrez jardun beharra dago, eta txapelketa, prestaketa lan bezala hartzen dugu, Iasai.

Gure helburua saio

politik egitea eta inguruko bertso giroa piztea da".

Taldea, bertsolariak ezezik, gajartzailak eta epaimahakideak ere osatzen dute. Baina, dudarik gabe, jendeak interesa kantatuko dutenengan jarriko du. Beraz, bertsolari elgoibartarrak lanean ikusi nahi dituenak badaki zer egin. Datorren ostiralean, hilaren 24an, San Migelera joan eta saioaz gozatu.

"Gafire Eleturata
saic enea
eta InguTle baulse
giroa pinea Cavy

SAN MIGEL AUZOKO

Jaiak

Irailak 24,
ostirala

20:00etan

Kanpai jotze eta txafliu jaurtirea jaien hasiera iragarritz.

22:30ean

GIPUZKOAKO HERRI ARTEKO
BERTSOLARI TXAPELKETA.

Ondoren,

erromeria *Egan* taldearekin.

Irailak 25
larunbata

22:30etan

DANTZA JAIALDIA HARITZ
TALDEAREKIN

Ondoren

Erromeria *Luhartz* taldearekin.

Goizaldeko 1:00etan

Bolo Txapelketa:

1. saria Sthil motozerra.
2. saria 12.000 pta.
3. saria 8.000 pta.
4. saria 4.000, pta.
5. saria 2.000 pta.
- eta 6. saria ustekabea.

Auzoko lehenarentzat
garaikurra.

firmas **toth**

Irailak 26, igandea

11:00etan, meza.

Ondoren, *Balzola analak* trikitilariak

12:00etan, III. Artzai Txakur Lehiaketa:

Fermin Ainzua, Tassekin

Peio Pagadizabal, Alairekin

M. Angel Elordi, *Txinorekin*

Kintin Alustiza, Xurnirekin

Jose R. Orbegozo, *Thatorekin*

Ion Osoro, Xonrekin

Jose A. Arrillaga, Txikirekin

Pello Segurola, Argirekin

17:00etan, idi demak:

Soarte, Lopategi eta Altzubarren.

1. saria 125.000 pta. eta garaikurra.

2. saria 110.00 pta. eta garaikurra.

3. saria 100.000 pta. eta garaikurra.

22:00etan, erromeria *Balzola* anaiekin

Irailak 29, asteazkena

SAN MIGEL EGUNA

11:30ean, meza nagusia.

Ondoren, *Ziarda* eta

Mañukorta bertsolariak.

13:00etan, auzoko bikoteen

XVI. Pilota Txapelketaren azken partidua.

22:00etan, erromeria *Joselu* Anaiekin.

Gauerdiko 00:00etan, txekorraren zozketa.



17 ostirala

19:00 MARGO
ERAKUSKETA
Egilea: Roberto Garcia
Kultur Etxean
Urriaren lera arte

22:15 ZINEA
"Notting Hill"

1 larun a a

19:30-22:15 ZINEA
"Notting Hill"

22:30 UDAL MUSIKA
BANDAREN
KONTZERTUA
Nafarroa Plazan

19 igandea

12:00 SENDOTZA
ELIZKIZUNA
San Bartolome Parrokian

19:30-22:15 ZINEA
"Notting Hill"

2 astele ena

22:15 ZINEA
"Notting Hill"

23 osteguna

17:30 HITZALDIA
Gaia: "Jubilazioa: etapa
berri baten hasiera"
Hizlariak: Adindu Taideko
kideak
Jubilatu Etxean
Antolatzailea:
Jubilatu Etxea

24 ostirala

22:15 ZINEA
"La Momia"

El ■ 111 BEZZER ■ . . IR . . . ■ 111

11
NE
A



Notting Hill

Williamek (Hugh Grant) bidaia liburuak saltzen ateratzen du bizimodua. Anna Scott (Julia Roberts), berriz, momentuko zine izarrik ezagunena da. Kasualitatearen kapritxoaz, Anna Williamen dandan sartu, eta dendaria zine izarrarekin maiteminduko da. Dendari soil batentzat oso zaila da munduko neskarik famatuenarekin maitasun harreman bat edukitzea. Spike pisukidearen laguntzarekin lortuko ditu bere asmoak.

Zuzendaria: Roger Michell.
Antzezleak: Julia Roberts, Hugh Grant, Rhys Ifans.

■ 111 11 ■ 11 111 ■ . . . ■ IR . . . II R

• **Sendotza eltddzuna igandean, hilaren 19an**

Irailaren 19an, igandean, 30 neska-mutilek sendotza hartuko dute San Bartolome elizan. Imanol Aldaregia jauna, Elizbarrutiko Idazkaria, izango da elizkizunaren burua edo arduraduna. Meza eguerdiko 12:00etan izango da.

• **Musika Bandak kontzertua emango du estreinakoz Natarroa Plazan**

Zapatuan, hilaren 18an, Udal Musika Bandak udazken-negu denboraldiko lehen kontzertua emango du Nafarroa Plazan. Euria egingo balu Udaletxeko arkupeetan eskainiko dute kontzertua. Gaueko 22:30etik aurrera eta Jose Antonio Osorok zuzenduta, honako pieza hauek joko dituzte: Puentearreas (R. Soutullo), Costumi Romani (G. Galanti), The Exodus Song (E. Gold), Memory (Rob Ares) eta Lawrence of Arabia (M. Jarre).

• **Jubilazioari buruzko hilzaldia Jubilatu Eman**

Jubilazioa: etapa berri baten hasiera' izenburupean, *Adindu* Taldeko ordezkariak hitzaldia eskainiko dute ostegunean, hilaren 23an. Hitzaldia Jubilatu Etxeak antolatu du eta KingKong-en duten egoitzan izango da arratsaldeko 17:30etik aurrera. Hizlariak gaztelaniaz arituko dira eta hitzaldia interesa duen edonori dago zuzenduta.

• **Roberto Gardaren margo erakusketaren inaugurazioa, gaur, hilak 17**

Gaur, hilak 17, Roberto Garcia elgoibartarraren margo erakusketaren irekiera ekitaldia izango da. Guztira 30 margo inguru izango dira ikusgai, gaurtik urriaren lera arte. Robertok 36 urte ditu eta margolari profesionala ez hada ere, margotzea bere zaletasun nagusia dela azaldu digu. "Noiztik naitzen margolaria galdetzen didatenean, idazten ikasi aurretik margotzen nuela erantzuten diet". Erakusketa honetan azken urteotan egin dituen lanak aurkeztuko ditu, "era guztietako estiloak eta gaiak lantzen ditut eta erakusketa hau izango da horren lekukorik argiena". Inaugurazio ekitaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

• **Morkalkoren mendi irteera, irailaren 26an**

Irailaren 26rako, datorren iganderako, mendi irteera antolatu du Morkaiko Mendizale Elkarteak. Zalama eta Balgerri mendien arteko zeharkaldia egiteko aukera izango dute Morkaikokoekin joaten diren mendizaleek. **Bi** mendi hauek Bizkaian daude, Santandergo mugan. Irteerara joan nahi dutenek Morkaiko Mendizale Elkartearen bulegoan eman dezakete izena ostiraletan eta larunbat goizetan bertara joanda edo 943 74 02 97 telefonora deituta.

T X A N D A K

FARMAZIAK

Egunez	Gauez
18 Bidasolo Bidasolo	19 Bidasolo Bidasolo
20 Zabaleta Zabaleta	21 Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)
22 Escala Escala	23 Bidasolo Bidasolo
24 Etxeberria Etxeberria	(Santa Ana kalean)

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
ANDUAGA: Herriko enparaniza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

19 igandea Fotero



5.4gT⁴I⁴

Heapaindegia

Depilazio Elektrikoa



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 943 74 1 2 56 - (mobila) 609 53 23 83

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna astearen eguerdia da.

Lana***ESKAINNTZA.**

- Neska bat behar da asteburuetan ileapaindegi hatean laguntzaile lanetarako. v 943 74 00 69
- Neska euskalduna hehar da Eibarren etxeko lanak egiteko. ✓ 943 12 02 20
- Tabernako sukaldarako pertsona behar da. Lanerako gogoarekin. tr 649 96 38 92
- Familia alernanak pertsona bat hartuko luke irailetik aurrera aupa-pair bezala aritzeko. • 943 74 19 65 (Ainhoa)
- Emakumea behar da 2 ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. a 943 74 38 83/ 943 89 03 42
- Neska behar da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. tt 943 74 12 24/ 943 74 16 60
- Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. Astelehenerdik ostiralera. 943 74 35 86
- Elgoiharren lan egiteko txarkuteroa behar da. ir 943 74 28 48 (22:00etatik aurrera)

ESKAERA

- Erizain laguntzailea eskaintzen da jendea norbere etxean zaintzeko. Esperientzia dut eta arduratsua naiz. 943 74 46 69
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. te 943 74 27 41
- ♦ Arratsaldez lan egiteko prest nago pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko. ar 629 40 21 70 (Ana)
- Erizain laguntzaile diplomatua eskaintzen da nagusiak eta gaixoak zaintzeko. Auto handia daukat. a 609 77 01 33 (Asis)
- Klinikak laguntzailea eskaintzen da gaixoak edo edadetuak zaintzeko. tr 943 74 04 86
- 32 urteko neska eskaintzen da umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. tr 943 75 51 93
- Sukaldaria eskaintzen da sukaldarako. umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. n 943 74 38 85. Gloria (goizetan deitu)

Salerosketak

- ♦ Game Boy Pocket-a salgai, 3 jokorekin. la erabili gabe, 943 74 39 70
- Opel Kadett autoa salgai. Egoera onean 943 74 20 15
- Artzai txakur aleman arrazako txakurkumeak salgai, pedigreearekin. ir 696 05 73 46
- 205 Rallye 103ev. salgai. 2(10 Km/h). 235.000 pezeta.. le 943 74 37 16 (Mancebo).
- Seat Ibiza (SS-AC) salgai. Motor ona. Itxuraz nahiko eskusa. Itxiera zentralizatu eta kristal-jasogailu elektrikoa. Merke. 617 92 72 96 (12:00etatik 22:00etara. Nekane)
- W.Polo GT salgai. SS-AK, egoera eta prezio onean, tr 943 74 43 10
- Okindegia bateko altzariak eta pisu digitala salgai. ir 943 75 51 99
- Renault Express autoa salgai. BI-AP, 160.000 Km. Errebisioa eginda eta egoera onean. Prezio ona. tr 943 74 28 13
- Mackinley etxeko kanping dena saltzeu dut. 4-5 pertsonarentzat. s 943 74 40 95 (Loli).
- Opel Corsa GSI salgai. 2.943 74 34 64 (Gauzeu deitu. Mikel)
- Ford Escort autoa salgai. I6V eta 90 zaldikoa. Airbag bikoitza eta ABS-a ditu. SS-AU. Interesatuek deitu 943 74 20 74 telefonora. (20:00etatik aurrera)

Garajeak

- Murradun garajea alokatzeko daukat San Roke 5-7an. 21. 943 74 33 39
- Garajea salgai Leku Ederren, 3. solairuan. a 689 93 79 90

Partikularrak

- Marrazketa teknikoko klaseak ematen ditut. 2s 943 74 43 98 (Gauzeu deitu. Iñaki)

Etxebizitzak

- Pisua salgai Santa Ana kalean. 1:e 689 93 79 90
- Pisua alokatzen da Deban. Irailaren erditik ekainera bitartean. Altzariek. Ir 943 12 15 41 943 19 10 28 (Eba)
- Berritutako etxe handia salgai Untsandin. 4 logela, sukaldea, 2 komun, egongela-jangela eta kanpora ematen duen patio eguzkitua. Prezio ona. Ir 943 74 14 54/943 73 40 31
- Pisua alokatzen da Urasandi auzoan. Berrira eta altzariek. Bi logela eta egongela. Ir 943 74 42 26 (Iluntzean deitu).
- Buhardila edo pisua alokatuko nuke pertsona bakarrarentzat. ir 943 74 05 99 (8:00etatik 13:00etara eta 17:(X)letatik 20:(X)etara)
- Etxebizitza salgai Errosario kalean. Ganhararekin eta altzariek. Plazutik gertu. ar 943 74 17 95
- Pisua salgai edo alokatzeko Torrevieján (Alicant) . mr 943 74 24 26 (Domingo Garcia)
- Pisua alokatuko nuke altzariek. Soldam finkort. ir 943 74 08 09 (Jone)

Bestelakoak

- ♦ Logela alokatzen da Arregitorren. tr 943 74 18 81 (Iluntzean deitu. Juani)
- Joan zen asteko astelehenean urrezko belarririk galduta nuen kalean. 943 74 05 78
- Bi mutil hartuko nituzke etxean. Logela eta arropak garbitzeko eskuhidea. .zr 943 74 09 44
- Logelak alokatzen ditut Urasandin. Sukaldea erabiltzeko eskubidearekin, is 943 74 03 93
- Betaurreko graduatuak galdu ditut Errosario kaletik Aubixarako bidean. a 943 74 17 15,
- Lorito bat galdu nuen abuztuaren hasieran Kalamua kalean. Bunt gorria du eta gorputz berdea. Hanka hatean eraztuna dauka. Norbaitek aurkitu badu deitu telefono honetara: 943 74 21 86
- A1WA markako walkmana galdu dut Plaza Handian. 943 74 32 65
- Bezero onak dituen ileapaindegia traspasatzen da atenditu ezin delako. Aramaion. tr 945 44 50 35/945 44 52 94 (Miren)


Agurrak

- Zorionak amatxo. Irailaren 19an zure urtebetetze eguna datorrela uste dut. Egundoriorientzua izan dadila zuretzat. Nik mamorruak, pastelak eta txanpana nahi ditut ospatzeko. Arkaitz.
- Zorionak Nerea Villarri, atzo 14 urte bete zituelako. Bastoia enkargatu dugu, ez ahuztu. Koraleko lehenengo ahotseko 3 lagunenez partez.
- Zorionak Lander Azpiazuri irailaren 12an urteak bete zituelako. Bi lagunenez partez.



- Zorionak Mikeli bere hirugarren urtebetetzean. familiaren penez. Muxu haundi bat eta ondo pasau ikastolako lagunekin.

- ♦ Zorionak amatxo eta musu handi bat, hilaren 16an urteak bete zituelako.



- Zorionak amama Lolitari, familiaren eta hatez ere Mikel 'haundiaren' partez. Muxu hatndi bat eta oso ondo pasa. Kafetxo eta pastelak nolko?

- Zer moduz 'cuarenton'?



- Zorionak Ignazio Vazquez bihar urteak beteko dituelako. Bere alaba Ainhoaren eta Leireren, eta emazte Arantxaren partez.



- Bertsotan abilak ez garenez, 'zorionak eta beste horrenbeste bete ditzazula' esanda konformatu beharko zara. Ostegunean parranda egiterik ez zenuenez izan, ondo aprobetxatu asteburua. Zorionak La Estrellatik'.

- Zorionak Ricardori, irailaren 13an 18 urte bete zituelako. Familiaren partez.



Aterpe

Taberna

Tel. 943 74 25 95



Mila esker!




SORALUZE

Santa Ana 8 · Tel. 943 74 36 34



Hebbide berria!





KENSINGTON

ZERBITZU LINGUISTIKOAK, S.L.

119992000 MATRIKULA ZABALIK

KENSINGTONEK HONAKO ZERBITZUAK ESKAINTZEN DIZKIZU:



- MAiLA qUzTIETAkO iNgElfsEko, FRANTSESEkO ETA AIEMANEkO KIASEAK
- Li bURUTEgiA / BidEOTEkA
- TUTOREtZA pERTSONAlIZATUA
- MATERiAl didAkTikoAREN SALM ENTA ZUZENA
- 4 URTEtik gORAKOENTZAKO KIASE bEREZIAK
- ENpRESEN SAiLA
- SUBENTzIONATUTAKO KURTSOAK

CAMbRidgEko AZTERkETAK

1 9 99ko EkAiNEko dErAldIAN %8 5Ak gAiNdITU du.

Zorionak e9iactalut
otlette9uovte#9441 I



GIPUZKOAKO HIZKUNTZA
IRAKASLE ELKARTEKO
BAZKIDE

P. MUGURUZA, 8 - 20870 ELGOIBAR
TEL/FAXA: 943 74 02 36
TEL: 943 74 35 12
E-MAIL: kensington@redestb.es

EGUZKI AUZOA, 5
20577 ANTZUOLA
TEL: 943 78 70 30